



20
18

Etxerat
Urtekaria

Euskal
Preso eta Iheslari
Politikoen
**Senide eta Lagunen
Elkartea**

SINTESIA

2018ko martxoaren 6an Xabier Rey Urmeneta zendu zen Puerto III espetxean. ETAk bere jarduera behin betirako uzteak euskal gizarteak hamarkadetan bizi izan duenetik ezberdina den agertoki baten aukera ireki zuenetik espetxean hildako hirugarren preso zen.

Ordudanik 7 urte iragan badira ere, Espainiako eta Frantziako gobernuak ez dira gai izan agertoki berri hori gauzatzeko beharrezkoak diren aldaketak gizarteari bermatzeko: gaur egun oraindik erabat indarrean jarraitzen du sakabanatze politikak, euskal preso politikoen erresistentzia fisikoa eta psikikoa mugaraino eramango duten salbuespen neurriez gogortutako espetxe politikak. Indarrean jarraitzen dute politika horren ondorioek ere:

Xabier Reyren heriotzak 25era igo du espetxe politika horren biktima diren euskal preso politikoen kopurua.

Euskal preso politikoen senitarteko eta adiskideentzat egoera horrek sortzen duen sufrikarioari urruntzeak dakarren zigorra erantsi behar zaio; salbuespen neurri horren ondorioak zuzenki nozitzen dituzte senitarteko eta adiskideek eta neurri horien biktima potentzial bihurtzen dira. 2018ko urtarrilean 298 euskal presoetatik 290 Euskal Herritik urrundua daude eta horietatik 199 familia-egoitzetatik urruneneko espetxeetan daude. Urteak eman duena hau da: bisitetarako egindako joan-etorrietan gertatu diren 7 trafiko istriputan 15 familiarteko eta adiskide zauritu dira.

Larriki gaixo dauden presoaren egoeran ez da aldaketarik gertatu eta, gainera, egoera hori nabarmenki okerragotu da Espetxe Erakundeek 3/2017 instrukzioa aktibatu dutenetik; izan ere, aktibatu dituen prozeduraren arabera, gaixotasun larri eta sendaezin batengatik espetxetik ateratzea eragozten zaie presoei, harik eta gaixotasunaren azken estadioan aurkitzen diren arte eta haien heriotza berehalakoa den arte.

Urtearen hasieran, Justizia Ministerioak eta Ipar Euskal Herriko eragile, antolakunde eta erakundeen ordezkaritza batek aurreko hilabeteetan izan zituzten solasaldi batzuen ostean, Frantziako Estatuak

hurbilketa plan bat jarri zuen abian. Euskal Herriko espetxeek ez dute zigorrak modu duin batean bizitzeko baldintzarik betetzen; beraz, euskal presoek Euskal Herritik hurbilen dauden espetxeetara eramatea eskatzen dute: Mont de Marsan eta Lannemezan-era. Otsailean eta urrian 21 preso eraman zituzten bi espetxe horietara; horietako batzuei egun gutxi batzuk falta zitzaizkien aske geratzeko. Lekualdatze horiek eginda Frantziako gobernuak amaitutzat ematen du presoek hurbilketa eta onartzen du presoak eta zailtasunak dituela aldaketak egiten jarraitzeko. Euskal Herritik urruneneko espetxeetan urrundua jarraitzen dute Frantziako Estatuan dauden preso euskaldunen erdiek edo. Bestalde, larriki gaixo diren gaixoak eta baldintzapeko askatasuna lortzeko irizpideak betetzen dituztenak aske uztea eragozten duen blokeoak ebatzi gabe jarraitzen du.

Espainiako estatuan euskal presoek senitarteko eta adiskideengan itxaropena sortu zuen Pedro Sanchez-ek agintera heldzean egindako iragarpenak: espetxe politika aldatuko zuela alegia.

Urte amaieran, ordea, 9 preso bakarrik aldatu zituzte lehengoak baino hurbilago dauden espetxeetara; antzeko distantziara dauden espetxeetara egingo diren lekualdatze batzuk iragarri dira, eta Euskal Herriko espetxeek debekatuak jarraitzen dute euskal presoentzat. Preso horien senitarteko eta adiskideentzat distantzia murriztu egin da, baina arriskuak jarraitzen du: kilometro gutxiago egin behar badituzte ere, ehunka kilometroko (500, 600, 800) bidaiak egin beharrean aurkitzen dira, bisita eskubidea gauzatu ahal izateko. Gogoratu besterik ez dago: 2018an gertatu diren 7 istripuetatik hiru Daroca, Topas eta Mansilla-ko espetxeetara egindako bidaietan gertatu dira; hain zuzen ere, beste espetxe batzuetara eta hiru espetxe horietara lekualdatu ditu berriki Espainiako gobernuak euskal presoak eta lekualdatze horiek "hurbilketa" gisara saldu ditu.

Larriki gaixo diren presoetako bat bakarrik lekualdatu dute hurbilago dagoen espetxe batera. Lekualdatze hori iragartzearekin batera, presoaren gaixotasunari buruzko datuak hedatu zituzten, presoak berak errespetatzeko eskatu zuen intimitate eta konfidentziasunerako eskubideak urratuz.

Espainiako gobernuak espetxe politikaren aldaketa garrantzitsu moduan saldu baditu ere lekualdatze horiek, presoek eta senitartekoen egoera orokorrari dagokionez, ez dira oso adierazgarriak: presoek %80k Euskal Herritik urrunen dauden espetxeetan jarraitzen du eta aldaketarik ez dago espetxetik askatuak izan beharko luketenen egoeran: larriki gaixo dauden eta 65 urtetik gorako egoeran.

Txosten honek, gure Elkartearentzat esanguratsuenak diren gertaerez gain, 2018 urtearen hasierako eta amaierako egoeraren taula konparatzaile bat jasotzen du.

Graduen politikari dagokionez, 1. gradutik 2. gradurako aldaketa batzuk egin dira eta horrek agirian utzi du zein irizpide politiko aplikatzen den. Irizpide hori oso urrun dago espetxearentzat zigorra betetzeak ustez duen helburutik: bergizarteratzea eta bersozializazioa. Auzitegiek lehen graduan dauzkate euskal presoak edo bigarren gradura pasatzen dituzte, erakunde armatuaren desagertze edo jarraipenari buruz egiten duten balioespen partikularren arabera.

Erbesteratuen egoerari buruzko aldaketa esanguratsurik ere ez dago. Haietako batzuek, pitinka-pitinka, (2018an hiru), beren egoera erregularizatu eta Euskal Herrira itzuli badira ere, dozenaka euskal hiritar baldintza zailetan bizi dira atzerrian, bizitza normalizatu bat inolaz ere ezin eramanez, Euskal Herritik, beren familiatik, beren kulturatik eta beren ingurune afektibo eta sozialetik milaka kilometrotara. Erbesteratuek, iraganeko mendeetan erabiltzen zen neurri baten arabera, linbo juridiko batean jarraitzen dute; epaituak izan gabe, duela hiru hamarkadetatik Afrika eta Latinoamerikako lurraldeetan egotera zigortuak izan dira.

Gobernuen nagikeria gorabehera, euskal gizarteak bide berriak bilatzen eta sustatzen ditu eta gatazkaren ebazpenean aurrerapausoak ematen jarraitzen du. Zentzu honetan garrantzi berezia ematen diogu hiru udaletxek hartutako erabakiari: presoak bisitatzea zihoazela edo bisitatik itzultzean izandako istripuetan hildako hiru herrikide sakabanatze-politikaren biktimatzat hartzeko erabakiari.

Etxeratek eragileekin eta erakundeekin lanean jarraitzen du, salbuespeneko espetxe politikek eragindako sufrikarioaren amaieraren bila. Duela urte asko hartutako konpromisoaren arabera, gatazken ebazpena, berradiskidetzea, bakea eta giza eskubideak lortzeko bidean abian jartzen diren dinamika, ekimen eta mobilizazioetan parte hartzen du Elkartek.

Ettxerat

1. EUSKAL PRESO POLITIKOEN KOLEKTIBOA: DATU OROKORRAK

2018 urtearen hasieran 299 euskal preso politiko zeuden. Horietako 4 espetxe arinduan zeuden –3, Euskal Herrian eta 1, Brasilen– gaixotasun larri eta sendaezinak jasateagatik edo epailariaren erabakiz; preso 1 arreta bereziko zentro batean eta 294, Euskal Herriko 2 espetxetan, Espainiako Estatuko 41 espetxetan, Frantziako Estatuko 21 espetxetan eta Portugaleko espetxe 1ean sakabanatuak. Kolektiboko 2/3 inguru Euskal Herritik urrunen dauden espetxeetan aurkitzen zen, beren familiako egoitzatik 600 eta 1100 km arteko distantziara.

Kolektiboko 24 presok gaixotasun larri eta sendaezinak jasaten zituen. 2 bakarrik zeuden Euskal Herriko espetxeetan; 21, Espainiako Estatuko espetxeetan sakabanatuak eta urrunduak zeuden eta 1, Frantziako Estatuan.

2018ko urtean zehar:

- Martxoaren 6an Puerto III-ko bere zeldan hilik aurkitu zuten Xabier Rey Urmeneta, euskal preso politikoa. 2008an espetxeratu zuten eta ordudanik 1. graduan, hots, erregimenik gogorrean, aurkitzen zen.
- ASKE UZTEAK: 36 preso utzi dituzte aske 2018an; horietatik 35, zigorrak osoki bete ondoren (horien arteko 3 preso, larriki gaixo zeudenak) eta bat, epaiketaren zain dagoena, behin-behineko askatasunean.
- ESPETXERATZEAK: 2 pertsona sartu zituzten espetxean; horietako bat, zigorra betetzeko Basauriko espetxean aurkeztu zen; eta bestea urrian espetxeratu zuten, Guardia Zibilak atxilotu ostean.
- LEKUALDATZEAK: 45 lekualdatze gertatu dira:
 - 25, Frantziako Estatuan: horietatik 22, Frantziako Gobernuak presoak hurbiltzeko duen planaren barnean, eta 3, sakabanatzeari dagokion lekualdatzeen dinamikaren barnean.
 - 18, Espainiako Estatuan: 9, Espainiako gobernuak hurbiltze-politika deitzen duenaren barruan, eta 9, sakabanatzeari dagokion lekualdatzeen dinamikaren barruan. Azken horietako 6 kasutan nabarmenki gehitu da urruntzea, Madrileko espetxeetatik Andaluzia, Levante edo Galiziakoetara eraman baitituzte.

- ENTREGATZEAK: Frantziako Gobernuak 9 euskal preso entregatu zizkion Espainiako Gobernuari. Bederatzi horietako bost aske utzi zituzten hurrengo hilabeteetan.

2018 urtea amaitzean 264 euskal preso daude; horietako 3 Euskal Herrian daude, espetxe arinduan, gaixotasun larri eta sendaezinagatik edo epailariaren erabakiz; horietako 1 arreta bereziko zentroan dago eta 260 sakabanatuak daude honako 54 espetxe hauetan: Euskal Herriko 2tan, Espainiako Estatuko 40tan, Frantziako Estatuko 11tan eta Portugaleko espetxe 1ean. Kolektiboaren 2/3 inguru Euskal Herritik urrunen dauden espetxeetan aurkitzen ziren, beren familia-egoitzatik 600 eta 1100 km arteko distantziara.


Kolektiboko 21 presok gaixotasun larri eta sendaezinak dituzte. Horietako 2 bakarrik aurkitzen dira Euskal Herriko espetxeetan; Espainiako Estatuan sakabanatuak eta urunduak daude 18 preso eta Frantziako Estatuan dago 1.



Etxerat

ALDERAKETA: URTARRILA - ABENDUA 2018

	URTARRILA 2018	%	ABENDUA 2018	%
1. Euskal Preso Politikoen KOLEKTIBOA:	299		264	
PRESO SAKABANATUAK	294	98 %	260	99 %
PRESO URRUNDUAK:	291	97 %	259	98 %
ESPETXE ARINDUA:	4		3	
ARRETA BEREZIKO ZENTROAK	1		1	
2. PRESO SAKABANATUAK:	294		261	
Euskal Herrian espetxeratuak:	2		3	
Espainiako Estatuan espetxeratuak:	230		210	
Frantziako Estatuan espetxeratuak:	61		46	
Portugalaren espetxeratuak:	1		1	
3. PRESO URRUNDUAK:	291		259	
1. Espainiako Estatuak:	230		210	
- 600 eta 1100 km-ren artean	153	66 %	133	63 %
- 400 eta 590 km-ren artean	59	26 %	55	26 %
- 400 km baino gutxiagora	19	8 %	22	11 %
2. Frantziako Estatuak:	61		46	
- 600 eta 1100 km-ren artean	44	72 %	16	35 %
- 400 eta 590 km-ren artean	9	15 %	3	6 %
- 400 km baino gutxiagora	7	13 %	27	59 %
4. LARRIKI GAIXO DAUDEN PRESOAK	24			21
Euskal Herrian espetxeratuak	2			2
Zentro berezietan	1			1
Frantziako Estatuan espetxeratuak	1			1
Espainiako Estatuan espetxeratuak eta urrunduak	20			17



Eguneratua / Actualizado / Actualisé: 2018-12-18

LEKUALDAKETAK / Traslados / Transferts

		Espetxetik De la prisión de: De la prison de:	Km	Espetxera A la prisión de: À la prison de:	Km
Oier Urrutia Gonzalez	2018-01-29	Navalcarnero	480	A Lama, Pontevedra	730
Iñigo Gulina Tirapu	2018-02-14	Soto del Real, Madrid	490	Jaen	780
Jon Bienzobas Arretxe	2018-02-16	Soto del Real, Madrid	490	Puerto III, Cádiz	1050
Jon Etxeberria Oiarbide	2018-02-16	Soto del Real, Madrid	490	Castelló	550
Zigor Garro Perez	2018-02-27	St. Maur, E. fr.	680	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Julen Mendizabal Elezkano	2018-02-17	Osny, E. fr.	970	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Josu Urbietta Alkorta	2018-03-09	Poitiers Vivonne, E. fr.	550	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Raul Aduna Vallinas	2018-03-09	Poitiers Vivonne, E. fr.	550	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Jon Salaberria Sansinenea	2018-03-09	Alençon, E. fr.	830	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Jon Gurutz Maiza Artola	2018-03-23	St. Maur, E. fr.	680	Lannemezan, E. fr.	330
Alberto Ilundain Iriarte	2018-03-23	St. Maur, E. fr.	680	Lannemezan, E. fr.	330
Iñigo Zapiain Romano	2018-03-23	Jaen	780	Aranjuez, Madrid	500
López Resina, Dolores	2018-04-06	Soto del Real, Madrid	490	Brieva, Avila (470 km)	470
Sirvent Auzmendi, Ekaitz	2018-04-13	Tarascon, E. fr.	750	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Fernández Aspurz, Joseba	2018-04-13	Osny, E. fr.	970	Muret CD	430
Borrero Toribio, Asier	2018-04-20	Poyssi, E.F.	950	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Iruretagoiena Lanz, Luis	2018-05-17	Alençon, E. fr.	830	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Oses Carrasco, Jose Javier	2018-05-25	Soto del Real, Madrid	490	Soria	270
Oiartzabal Txapartegi, Asier	2018-06-04	St. Maur, E. fr.	680	Lannemezan, E. fr.	330
Palacios Aldai, Gorka	2018-06-06	Soto del Real, Madrid	490	Murcia II	830
Errazkin Telleria, Ugaitz	2018-04-08	Soto del Real, Madrid	490	Algeciras, Cádiz	1100
Ezeiza Aierra, Asier	2018-06-14	Tarascon, E. fr.	750	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Jurdan Martitegi Lizaso	2018-07-06	Moulins Yzeure, E. fr.	800	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Aitzol Etxaburu Artetxe	2018-07-06	Clairvaux, E. fr.	1050	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Ibon Goieaskoetxea Arronategi	2018-07-13	Arles, E. fr.	750	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Igor Suberbiola Zumalde	2018-07-13	Arles, E. fr.	750	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Asier Bengoa Lpz de Armentia	2018-07-13	Clairvaux (E.F.)	1050	Lannemezan (E.F.)	330
Javier Abaunza Martinez	2018-07-20	Moulins Yzeure, E. fr.	800	Lannemezan (E.F.)	330
Alfredo Remirez Marañon	2018-08-10	Daroca, Zaragoza	300	Zaballa	0
Iñaki Reta Frutos	2018-08-25	Fleury Merogis, E. fr.	1050	Fresnes (E.F.)	930
Izaskun Lesaka Arguelles	2018-09-03	Fleury Merogis, E. fr.	1050	Reau-Sud-Francilien (E.F.)	930
Ander Mujika Andonegi	2018-09-20	St. Martin de Ré, E. fr.	550	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Fermin Martínez Bergara	2018-09-20	St. Martin de Ré, E. fr.	550	Mont-de-Marsan, E. fr.	234

Kepa Arronategi Azurmendi	2018-09-21	Almeria	1000	Zuera, Zaragoza	300
Marta Igarritz Izeta	2018-09-28	Castelló	550	Logroño	190
Zigor Merodio Larraona	2018-10-18	St. Martin de Ré	550	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Jon Rubenach Roiz	2018-10-18	St. Martin de Ré	550	Mont-de-Marsan, E. fr.	234
Maria Lizarraga Merino	2018-09-20	Villena, Alacant	720	Valencia III, Picassent	540
Iñigo Gutiérrez Carrillo	2018-09-20	Villena, Alacant	720	Valencia III, Picassent	540
Itziar Plaza Fernández	2018-10-30	Soto del Real	490	Estremera	520
Codo Calleja, Jagoba	2018-11-03	Albocasser, Castelló	590	Logroño	190
Jesus Maria Gómez Ezkerro	2018-11-09	Curtis	650	Villabona	440
Emilio Salaberria Etxebeste	2018-11-22	Curtis	650	El Dueso	225
Fernando Alonso	2018-11-22	A Lama	730	Villabona	440
Sergio Polo Escobes	2018-11-29	Algeciras	1100	Herrera	620
Xabier Tximeno Inza	2018-12-10	Villena	720	Burgos	210
Mikel Orbegoza Etxarri	2018-12-14	Badajoz	750	Valladolid	340
Gorka Fraile Iturralde	2018-12-15	Badajoz	750	El Dueso	225
Jon Lopez	2018-12-29	Herrera	620	Daroca	360

FRANTZIAR ESTATUAK ESPAINIAR ESTATUARI ENTREGATUAK

Entregados/as por el Estado francés

Remis/e/s par l'État français à l'État espagnol

Jon Bienzobas Arretxe	2018-01-05
Aletxu Zobarán Arriola	2018-01-04
Jose Javier Oses Carrasco	2018-01-18
Lola López Resina	2018-01-31
Joseba Iturbide Otxoteko	2018-02-22
Gorka Palacios Aldai	2018-04-20
Ugaitz Errazkin Telleria	2018-04-20
Itziar Plaza Martínez	2018-08-18
Maite Aranalde Ijurko	2018-09-20

Etxerat

ASKATZEAK / Libertades / Libérations 2018

	DATA	ESPETXEA / Prisión / Prison	URTE ESPETXEAN /	
			Años en prisión /	
			Annés en prison	
Joxean Etxeberria Arbelaiz	04/01/2018	Soria	11	(1)
Aletxu Zobarán Arriola	04/01/2018	Soto del Real, Madrid	6	(1)
Ramon Aldasoro Magunazelaia	18/01/2018	Murcia II	20	(1)
Iñaki Igerategi Lizarribar	18/02/2018	Badajoz	6	(1)
Inaxio Otaño Labaka	18/02/2018	Monterroso, Lugo	6	(1)
Karlos Cristobal Martinez	19/02/2018	Algeciras, Cádiz	22	(1)
Aritz Arginzoniz Zubiaurre	23/02/2018	Huelva	10	(1)
Joseba Iturbide Otxoteko	23/02/2018	Soto del Real, Madrid	5	(1)
Asier Uribarri Benito	23/02/2018	Zuera, Zaragoza	20	(1)
Lander Maruri Basagoitia	23/02/2018	Dueñas, Palencia	20	(1)
Joseba Vizán González	28/02/2018	Brasil		(3)
Zunbeltz Larrea Azpiri	19/03/2018	Castelló	15	(1)
Igor Uriarte López de Vicuña	23/03/2018	Chateaux	5	(1)
Jon Salaberria Sansinenea	28/03/2018	Mont-de-Marsan, E. fr.	10	(1)
Julen Mendizabal Elezkano	31/03/2018	Mont-de-Marsan, E. fr.	5	(1)
Majarenas Ibarreta, Sara	09/04/2018	Aranjuez	13	(1)
Albisu Hernández, Iñigo	23/04/2018	Soto del Real, Madrid	11	(1)
Sebastian Iriarte, Alfontso	26/04/2018	Valladolid	20	(1)
Lasa Mendiaraz, Sebas	26/04/2018	Villena, Alacant	20	(1)
Galarraga Arrona, Joseba	11/06/2018	Valladolid	19	(1)
Lejarzegi Olabarrieta, Endika	13/06/2018	Monterroso, Lugo	15	(1)
Jose R. Lopez de Abetxuko Likiniano	05/07/2018	Villabona, Asturias	29	(1)
Oskar Cadenas Lorente	08/07/2018	Murcia II	18	(1)
Jose Jabier Osés Carrasco	23/07/2018	Soria	6	(1)
Jesus M ^a López González	23/07/2018	Ocaña II, Toledo	20	(1)
Santi Arrospide Sarasola	05/08/2018	Topas, Salamanca	31	(1)
Joseba Enbeita Ortuondo	15/08/2018	Puerto III, Cádiz	23	(1)
Leire Etxeberria Simarro	15/08/2018	Algeciras	12	(1)
Raul Aduna Vallinas	28/08/2018	Mont-de-Marsan, EF	5	(1)
Aitor Fernández Terceño	22/08/2018	Aranjuez	3	(1)
Iñigo Gulina Tirapu	22/08/2018	Jaen II	1	(1)
Hodei Ijurko Iroz	07/09/2018	A Lama, Pontevedra	10	(1)
Alfredo Ramirez Maraño	03/11/2018	Zaballa	1	(1)
Ugaitz Errazkin Telleria	03/11/2018	Algeciras	6	(4)

(1) Zigor osoa betea / Cumplimiento íntegro de la condena / Fin de la peine

(2) Espainiar estatutaren esku utzi ondoren. Tras ser entregado por el Estado francés / Après avoir été remis par L'État espagnol

(3) Estradizio eskaria ukatua / Rechazada la demanda de extradición / Demande d'extradition refusée

(4) Behin-behineko askatasuna / Libertad provisional / Liberté provisoire

1. ESPETXE POLITIKAREN ONDORIOAK:

ISTRIPUAK:

2018-01-27. Salamancako Topas espetxean, familiako egoitzatik 403 km-tara espetxeratuta dagoen Xabier Ugarte Villar presoaren senitarteko batek istripua izan zuen, hari bisita bat egitetik itzultzean.

2018-02-26. Basauriko espetxetik Zaragozako Daroca espetxera urrundu zuten Alfredo Ramirez, familia egoitzatik 367 kilometrotara. Aste batzuk geroago haren bost senitarteko eta adiskidek istripua izan zuten Alfredo bisitatzetik itzultzean.

2018-04-02. Frantziako Estatuan, Euskal Herritik 850 kilometrora, Arlesko espetxean dagoen Ibon Goieaskoetxea euskal preso politikoa hiru senitartekok istripua izan zuten, hura bisitatzera zihoazela. Ibilgailua kaltetua geratu zen eta ezin izan zuten bidaia jarraitu.

2018-07-02. Garikoitz Garcia Arrietaren hurbileko bi pertsonak istripua izan zuten hura bisitatzetik zetozenean. Euskal preso politikoa Valenciako Picassen espetxean dago, Euskal Herritik 540 kilometrora.

2018-11-11. Karmelo Lauzirika euskal preso politikoa hurbileko bi pertsonak istripua izan zuten hura bisitatzera zihoazela. Karmelo Lauzirika Castelló I espetxean dago, familiako egoitzatik 550 kilometrora. Istripua izan duen pertsonetako batek presoak bisitatzeko bidaietan izan duen bigarren istripua da hau.

2018-11-12. Leongo Mansilla espetxean Euskal Herritik 360 kilometrora dagoen Olga Comes Aranbillet presoaren hurbileko pertsona batek istripua izan zuen hura bisitatzetik itzultzean. Istripuaren gunean osasun zerbitzuen laguntza jaso behar izan zuen. Erabat hondatuta geratu zen ibilgailua. Aurreko kasuan bezala, bisitaldiatarako bidaietan pertsona horrek izandako bigarren istripua zen hori.

2018-12-21. Euskal Herritik 1050 km-ra dagoen Puerto III presondegian gatibu dagoen Dani Pastor Alonso presoaren senitartekoek istripua izan zuten, hura bisitatzera zihoazenean. Istripuaren gunean osasun zerbitzuen laguntza jaso behar izan zuten eta autoa erabat hondatuta geratu zen.

Ettxerat

2. ERAKUNDEEN ONDORIOAK:

URTARRILA

BARAKALDOKO UDALA. Sakabanatzeari eta urruntzeari azkena emateko eta zigorraren $\frac{3}{4}$ beteak dituzten herriko presoen baldintzapeko askatasuna eskatzeko mozioa. EAJ, EH Bildu eta Irabazi-ren aldeko botoekin onartu zen mozioa. Presoen urruntzeari azkena ematearen alde agertu zen PSE, baina baldintzapeko askatasuna eskatzea baztertu zuen.

OTSAILA

OÑATIKO UDALA. Aho batez onartu zen Etxerat-ek proposatutako aldarrikapen instituzionala, urruntzea berehala indargabetzea eskatzen zuena. Euskal preso politiko bat bisitatzetik itzultzean haren senitarteko batek izandako istripu baten ondoren aurkeztu zen proposamena. Presoa eta senitartekoa oñatiarrak dira.

OTXANDIOKO UDALA. Udalak aho batez sakabanatzearen biktimaren izaera aitortu zion Ruben Garateri, duela 18 urte Alcalá Meco espetxean bisita bat egitetik zetorrela istripu batez hil zenari.

MARTXOA

NAFARROAKO PARLAMENTUA. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Bozeramaileen Batzordeak sakabanatzearen kontrako eta espetxe politika berri baten aldeko jarrera agertu zuten. Geroa Bai, EH Bildu, Podemos-Ahal Dugu eta I-E-k emandako aldeko botoekin onartu zen agerpena. PSN-k lehen puntua baztertu zuen eta bigarrena onartu. UPN eta PPK kontra bozkatu zuten.

AMURRIOKO UDALA. Sakabanatzearen amaiera eskatzen duen mozioa aho batez onartu zen, Alfredo Ramirez herriko euskal preso politikoaren bost senitartekok hura bisitatzetik zetozenean izandako istripu baten ondoren. EH Bildu, EAJ, PSE eta Podemos-Ahal Dugu-ren aldeko botoekin onartu zen. PPko zinegotzia abstenitu egin zen bozketan.

APIRILA

BILBOKO UDALA. Urruntzearen kontrako mozioa onartu zen EAJ, PSE, EH Bildu, Udalberri eta Goazen Bilbao-k emandako aldeko botoekin. Udalberri horretako Ibon Goieaskoetxea euskal preso bisitatzera zihoazenean istripu bat izan zuten haren senitartekoek eta istripuaren ondoren aurkeztu zen mozioa.

ARABAKO BATZAR OROKORRAK: Euskal presoak Euskal Herrira hurbiltzearen eta urruntze politikari azkena ematearen aldeko mozioa onartu zen, EAJ, EH Bildu, FSE eta Podemos-Ahal Dugu-ko batzarkideek emandako aldeko botoekin. Kontrako botoa eman zuten PP-k eta Talde Mistoko batzarkideak.

EKAINA

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA BARTZELONAN. Gatazka osotasunean ebazteko zeharkako gehiengo politiko bat artikulatzea proposatu zuen eta euskal preso politikoak bere egoitzetara hurbildu beharra planteatu zuen.

NAFARROAKO PARLAMENTUA. Egungo espetxe politikarekin ados ez dagoela adierazten du Nafarroako Parlamentuak eta bizikidetza politiketan aurrera egin beharra ikusten du. Aldeko botoa ematen dute Geroa Bai, EH Bildu, Ahal Dugu, Izquierda-Ezkerra eta PSN-k. Azken honek lehenengo aldiz eman zituen bere botoak izaera honetako proposamen baten alde.

EUSKO LEGEBILTZARRA: Espetxe politika berri bate aldeko Legez Besteko Proposamena. Urruntzearen espetxe politikarekiko eta bakartzearen salbuespen neurriekiko adostasunik eza agertzen du eta bizikidetza politiketan aurrera egin beharra ikusten du.

IRUÑEAKO UDALA. Sakabanatze politikaren biktima izaera aitortzen diote Sara Fernandez-i. EH Bildu, Geroa Bai, Aranzadi eta Izquierda-Ezkerra-ren sostenguaz onartu zen mozioa. Gainera, PSN-k proposatu zuen, adizioko emendakin baten bidez, Udalak defenda dezala "sakabanatze politikari azkena emateko beharrezko urratsak eman behar direla"; proposamen horrek EH Bildu, Geroa Bai, Aranzadi eta Izquierda-Ezkerra-ren sostengua izan zuen. Sara Fernandez 2003ko azaroaren 29an zendu zen, Madrileko Valdemoro espetxera bisita egitera zihoala istripua izanda, bere etxetik 410 kilometrora.

URRIA

EUSKO LEGEBILTZARREAN AGERPENA. Urriaren 2an Eusko Legebiltzarreko Lan eta Justizia Batzordean egin zuen bere agerpena Etxerat-ek, espetheen balizko transferentzia baten eremuan garatzen den lanaren testuinguruan, espetxe politika propio baten garapena ahalbidetuko lukeen lanaren testuinguruan. Etxerat-en bozeramaile diren Urtzi Errazkin eta Patricia Velezek beren esperientziaren berri eta beren testigantza eman zuten salbuespeneko espetxe politiketatik eratorritako hiru hamarkadetako eskubideen urraketa eta sufrikarioei buruz.

AZAROA

BARAÑAINGO UDALA. Herriko bizilaguna zen Karmele Solagureni sakabanatze politikaren biktima izaera aitortzen dion mozioa onartu zen. Ekimen hori Barañaingo 843 bizilagunen sinaduren sostenguekin aurkeztu zen eta proposaturiko testuak EH Bildu, I-E, Participando en Barañain eta Geroa Bai-ren babesa jaso zuen. Kontrako botoa eman zuten UPN, PSN eta Pueblo de Barañain-ek.

Karmele Solaguren 2004ko abenduaren 6an hil zen, Alcalá Meco-ko espetxera bere semea bisitatzera zihoala, etxetik 500 kilometrora.



Etxerat

ERANSKINAK:

1. Larriki gaixo dauden euskal preso politikoak
2. Deportazioa
3. Euskal Preso Politikoen Kolektiboa



Etxerat

LARRIKI GAIXO DAUDEN EUSKAL PRESO POLITIKOAK

1. ARIZKUREN RUIZ, Josetxo

- Iruñea, Nafarroa
- 1958an jaioa; 61 urte
- 1999an espetxeratua: 20 urte espetxean
- Espetxea: MURCIA II; Euskal Herritik 790 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Kardiopatia iskemiko larria (Angor erakoa). (Kateterismoa:Stent hodi batean)

2. ARRIETA LLOPIS, Mikel

- Errenteria, Gipuzkoa
- 1960an jaioa; 59 urte
- 2004an espetxeratua: 15 urte espetxean
- Espetxea: ALGECIRAS; Euskal Herritik 1.100 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Espondiloartropatia kronikoa

3. ARRONATEGI AZURMENDI, Kepa

- Ea, Bizkaia
- 1966an jaioa; 53 urte
- 1997an espetxeratua: 21 urte espetxean
- Espetxea: ZUERA, Zaragoza; Euskal Herritik 270 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Esperientzia katastrofikoaren ondorengo izaeraren aldaketa iraunkorra, eldarnio ideiekin. Bere burua zauritzeko ekintza errepikakorra.

4. ARRUARTE SANTA CRUZ, Garikoitz

- Hernani, Gipuzkoa
- 1980an jaioa; 39 urte
- 2003an espetxeratua: 16 urte espetxean
- Espetxea: ALMERÍA; Euskal Herritik 1.000 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Espondilitisa (Espondiloartropatia B27 +)

5. BORDE GAZTELUMENDI, Joseba

- Ugao, Bizkaia
- 1959an jaioa; 60 urte
- 2002an espetxeratua: 17 urte espetxean
- Espetxea: CURTIS, A Coruña; Euskal Herritik 650 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Koloneko adenokartzinoma infiltratua

6. CODÓ CALLEJO, Jagoba

- Donostia, Gipuzkoa
- 1964an jaioa; 55 urte
- 2001ean espetxeratua: 18 urte espetxean
- Espetxea: LOGROÑO; Euskal Herritik 190 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Espondilitis ankilosantea B27 negatiboa. Pluripatologia

7. EROSTEGI BIDAGUREN, Joseba

- Antzuola, Gipuzkoa
- 1953an jaioa; 66 urte
- 1997an espetxeratua: 22 urte espetxean
- Espetxea: HERRERA, Ciudad Real; Euskal Herritik 600 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Koloneko askotariko polipoak kolektomiarekin. Perineo aldeko askotariko polipoak. Kartzinoma berrukosoa

8. ETXEBERRIA MARTIN, Iñaki

- Iruñea, Nafarroa
- 1964an jaioa; 55 urte
- 1996an espetxeratua: 23 urte espetxean
- Espetxea: TOPAS, Salamanca; Euskal Herritik 440 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Eboluzio luzeko Miopia Magnoa. Eskuineko begiko erretina hemorragia. Ikusmen zorrotzasunaren galera. Ezkerreko begiko afaquia.

9. FERNANDEZ IRADI, Ibon

- Lasarte, Gipuzkoa
- 1971ean jaioa; 48 urte
- 2003an espetxeratua: 16 urte espetxean
- Espetxea: LANNEMEZAN, Frantzia; Euskal Herritik 280 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Esklerosi anizkoitza

10. FRAILE ITURRALDE, Gorka

- Durango, Bizkaia
- 1970ean jaioa ; 49 urte
- 1998an espetxeratua: 21 urte espetxean
- Espetxea: EL DUESO, Cantabria; Euskal Herritik 170 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:
Mingaineko kartzinoma epidermoidea

11. GOGORZA OTAEGI, Aitzol

- Orereta, Gipuzkoa
- 1975ean jaioa; 44 urte
- 1999an espetseratua: 20 urte espetxean
- Espetxea: BASAURI, Bizkaia
- DIAGNOSTIKOA:

Obsesio Konpulsio Desoreka sintoma psikotikoekin. Birika Tronboflebitisa. Birika infartoa

12. IPARRAGIRRE BURGOA, Ibon

- Ondarroa, Bizkaia
- 1973an jaioa; 46 urte
- 2014ean espetxeratua; 5 urte kartzelan
- Gasteizko BESARKADA ETXEA Harrera etxean
- DIAGNOSTIKOA:

VIH C-3 estadioko infekzioa, neurologia eraso garrantzitsuarekin (Hondamen neurologia: epilepsia aldiak). Enzefalopatia subakutua. Pneumonia aldia.

13. MAIZA ARTOLA, Gurutz

- Etxarri Aranatz, Nafarroa
- 1950an jaioa; 69 urte
- 2007an espetxeratua: 12 urte espetxean
- Espetxea: LANNEMEZAN, Frantzia; Euskal Herritik 280 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:

Ikusmen zorroztasunaren galera: ezkerreko begiko erretina-askatzea, berriki, eta eskuinekoa galera haurtzarotik). Diabetes Mellitus-II. Dislipemia. Hipertentsioa. Fibrilazio aurikularra.

14. MARTIN HERNANDO, Jesus M^a

- Basauri, Bizkaia
- 1962an jaioa; 57 urte
- 2002an espetxeratua: 17 urte espetxean
- Espetxea: ZABALLA, Araba
- DIAGNOSTIKOA:

Eskizofrenia paranoidea. Aorta balbulopatia. Giltzurrun arazoak.

15. OTEGI UNANUE, Mikel

- Itsasondo, Gipuzkoa
- 1972an jaioa; 47 urte
- 2003an espetxeratua: 16 urte kartzelan
- Espetxea: Valdemoro-Madrid III; Euskal Herritik 460 kilometrora
- DIAGNOSTIKOA:

Sindrome Koronario

16. ANONIMOA

- 15-20 urte artean espetxean
- Euskal Herritik 600-1.100 arteko kilometrora espetxeratua
- DIAGNOSTIKOA:
Psoriasi artropatia

17. ANONIMOA

- 15-20 urte artean espetxean
- Euskal Herritik 600-1.100 arteko kilometrora espetxeratua
- DIAGNOSTIKOA:
Espondilitis ankilosantea.

18. ANONIMOA

- 5-10 urte artean espetxean
- Euskal Herritik 600-1.100 arteko kilometrora espetxeratua
- DIAGNOSTIKOA:
Barrabiletako tumorea

19. ANONIMOA

- 20 urte baino gehiago espetxean
- Euskal Herritik 600-1.100 arteko kilometrora espetxeratua
- DIAGNOSTIKOA:
Psikosi gisako depresiolarriaren koadroa

20. ANONIMOA

- 15-20 urte artean espetxean
- Euskal Herritik 600-1.100 arteko kilometrora espetxeratua
- DIAGNOSTIKOA:
Tiroideetako kartzinoma papilarra.

21. ANONIMOA

- 15-20 urte artean espetxean
- 60 urte baino gehiago
- Euskal Herritik 400-600 arteko kilometrora espetxeratua.
- DIAGNOSTIKOA:
Prostatako minbizia


Etxerat

Informazio iturria: Jaiki Hadi Elkarte



DEPORTAZIOA

Deportación
Déportation



EUSKAL HERRIA

BASAURI, Bizkaia

- 1 Gogorza Otaegi, Aitzol
- 2 Ibarrola Perez, Julen

ZABALLA, Araba

- 3 Martin Hernando, Jesus M.

ESTATU ESPAINOLA

A LAMA, Pontevedra - 730 km

- 1 Goiaskoetxea Arronategi, Eneko
- 2 Herrera Vieites, Aitor
- 3 Makazaga Azurmendi, Xabier
- 4 Martinez Ahedo, Gorka
- 5 Urrutia Gonzalez, Oier
- 6 Armendariz G.Langarika, Lierni
- 7 Martinez Garcia, Idoia

ALGECIRAS (Botafuego), Cádiz - 1100 km

- 8 Arrieta Llopis, Mikel
- 9 Fano Aldasoro, Unai
- 10 Loran Lafourcade, Gorka
- 11 Sola Campillo, Aurken
- 12 Solana Matarran, Jon Igor
- 13 Urizar de Paz, German
- 14 Perez Aristizabal, Eider

ALMERIA - 1000 km

- 15 Arruarte Santacruz, Garikoitz
- 16 Ginea Sagasti, Josu
- 17 Krutxaga Elezkano, Iñaki
- 18 Otegi Eraso, Andoni
- 19 Viedma Morillas, Alberto
- 20 Gallastegi Sodupe, Lexuri
- 21 Yañez Ortiz de Barron, Iratxe

ARANJUEZ, Madrid VI - 500 km

- 22 Zapiain Romano, Iñigo
- 23 Etxeberria Caballero, Beatriz + umea

BADAJOS - 750 km

- 24 Garcia Justo, Asier

BRIEVA, Avila - 470 km

- 25 Lopez Resina, Lola

BURGOS - 210 km

- 26 Ezkerra Laspeñas, Ekaitz
- 27 Tximeno Inza, Xabier
- 28 Zurutuza Sarasola, Jose Antonio

AITA MENNI ZENTROA

- 4 Iparragirre Burgoa, Ibon

CACERES - 650 km

- 29 Olaizola Baseta, Aitor
- 30 San Argimiro Isasa, Mikel

CASTELLO I - 550 km

- 31 Altable Etxarte, Jesus M^a
- 32 Cano Hernandez, Pedro Maria
- 33 Gallastegi Sodupe, Orkatz
- 34 Lauzirika Orbe, Karmelo
- 35 Otxoa de Eribe Landa, J. Angel
- 36 Zelarain Ortiz, Oskar
- 37 Saez de la Cuesta, Alicia

CASTELLO II, (Albocasser) - 550 km

- 38 Arri Pascual, Alvaro
- 39 Bilbao Beaskoetxea, Iñaki
- 40 Etxeberria Oiarbide, Jon
- 41 Iragi Gurrutxaga, Harriet
- 42 Karasatorre Aldaz, Juan Ramon
- 43 Markes Zelaia, Patxi
- 44 Perez Sorriketa, Ugaitz

CORDOBA (Alcolea) - 810 km

- 45 Alonso Rubio, Iñaki
- 46 Calabozo Casado, Oskar
- 47 Gallaga Ruiz, Javier
- 48 Muñoa Arizmendiarieta, Ibon
- 49 Perez Aldunate, Xabier
- 50 Portu Juanena, Igor
- 51 Usandizaga Galarraga, Xabin
- 52 Vidal Alvaro, Gorka
- 53 Egues Gurrutxaga, Ana Belen

CURTIS, A Coruña - 650 km

- 54 Blanco Santisteban, Zigor
- 55 Borde Gaztelumendi, Joseba
- 56 Bravo Saez de Urabain, Zigor
- 57 Eskudero Balerdi, Gregorio
- 58 Lopez de Lacalle Gauna, Alberto
- 59 Mariñelarena Garziandia, Luis
- 60 Murga Zenarruzabeitia, Andoni
- 61 Jauregi Amondarain, Oskarbi

DUEÑAS (La Moraleja), Palencia - 300 km

62 Karrera Arenzana, Asier

EL DUESO, Cantabria - 225 km

63 Salaberria Etxebeste, Emilio

64 Fraile Iturralde, Gorka

ESTREMER, MADRID VII - 520 km

65 Narvaez Goñi, Juan Jesus

66 Telleria Uriarte, Angel

67 Troitiño Arranz, Antton

68 Alberdi Uranga, Itziar

69 Plaza Fernández, Itziar

FONCALENT, Alacant I - 760 km

70 Badillo Borde, Irkus

71 Mardones Esteban, Asier

72 Oña Ispizua, Josune

GRANADA (Albolote) - 780

73 Agote Cillero, Arkaitz

74 Apaolaza Sancho, Iban

75 Barrios Martin, Jose Luis

76 Beaumont Etxebarria, Iñaki

77 Bilbao Solaetxe, Unai

78 Coto Etxeandia, Egoitz

79 Lopez de Okariz, Unai

80 Miner Villanueva, Imanol

81 Olarra Guridi, Juan Antonio

82 Rodriguez Lopez, Asier

83 Ugarte Lopez de Arkate, Diego

84 Delgado Iriondo, Agurtzane

85 Mujika Goñi, Ainhoa

HERRERA, Ciudad Real - 620 km

86 Armendariz Izagirre, Iñaki

87 Erostege Bidaguren, Joseba

88 Larretxea Mendiola, Joanes

89 Lopez Gomez, Jon

90 Marcos Alvarez, Faustino

91 Polo Escobes, Sergio

92 San Pedro Blanco, Jon Mirena

HUELVA II - 1000 km

93 Besance Zugasti, Juan Carlos

94 Franco Martinez, Bittor

95 Garcia Gaztelu, Xabier

96 Garcia Jodra, Fernando

97 Lima Sagarna, Iker

98 Lopez Anta, Angel

99 Murtua Eguren, Aitzol

100 Urretabizkaia Saukillo, Jon

101 Gallastegi Sodupe, Irantzu

JAEN II - 780 km

102 Aginagalde Ugartemendia, Beinat

103 Fresnedo Gerrikabeitia, Aitor

104 Garcia Aliaga, Aitor

105 Guridi Lasa, Iñigo

106 SarasolaYarzabal, Mattin

107 Bakedano Maidagan, Oihane

LOGROÑO - 190 km

108 Aragon Iroz, Santiago

109 Codo Callejo, Jagoba

110 Igarriz Izeta, Marta

MANSILLA (Leon) - 360 km

111 Subijana Izquierdo, Juan Carlos

112 Comes Arranbillet, Olga

MONTERROSO (Lugo) - 640 km

113 Aienza Laborda, Ibai

114 Aienza Laborda, Mikel

MURCIA I - 830 km

115 Martinez Arkarazo, Gorka

116 Novoa Arroniz, Jose Mari

117 Ramada Estevez, Fco Jose

118 Samaniego Curiel, Ekaitz

119 Segurola Beobide, Joseba

MURCIA II - 830 km

120 Andueza Antxia, Oier

121 Arizkuren Ruiz, Jose

122 Arkauz Arana, Josu

123 Atristain Gorosabel, Javier

124 Crespo Ortega, Jon

125 Goitia Abadia, Oier

126 Izpura Garcia, Mikel

127 Palacios Aldai, Gorka

128 Sansebastian Gaztelumendi, Mikel

129 Troitiño Ciria, Jon

130 Garcia Montero, Ainhoa

OCAÑA I, Toledo - 520 km

131 Aretxabaleta Rodriguez, Liher

132 Esnaola Dorronsoro, Aitor

133 Herrador Pouso, Juan Carlos

OCAÑA II, Toledo - 520 Km

134 Agirre Ibañez, Xabier

PUERTO I, Cádiz 1.050 km

- 135 Almaraz Larrañaga, Agustin
- 136 Atxurra Egurrola, Julen
- 137 Elejalde Tapia, Fernando
- 138 Garate Galarza, Endika
- 139 Gurtubai Sanchez, Sebasten
- 140 Lerin Sanchez, Jose Angel
- 141 Orbe Sevillano, Zigor
- 142 Ordoñez Fernandez, Josu
- 143 Zabalo Beitia, Xabier
- 144 Zubiaurre Agirre, Jon

PUERTO III, Cádiz - 1.050 km

- 145 Agirrebarrena Beldarrain, Aitor
- 146 Barreras Diaz, Oskar
- 147 Beobide Arza, Ibai
- 148 Bienzobas Arretxe, Jon
- 149 Castro Zabaleta, Manex
- 150 Cotano Sinde, Aitor
- 151 Dorronsoro Malaxetxebarria, J.M
- 152 Etxeberrria Garaikoetxea, J Mari
- 153 Parot Navarro, Unai

SEVILLA II - 910 km

- 154 Agirresarobe Pagola, Gurutz
- 155 Arakama Mendia, Iñaki
- 156 Arriaga Arruabarrena, Rufino
- 157 Arzalluz Goñi, Asier
- 158 Etxabarri Garro, Juan M^a
- 159 Etxeberria Goikoetxea, Garikoitz
- 160 Lebrero Panizo, Roberto
- 161 Olabarrieta Colorado, Iker
- 162 Vallejo Franco, Iñigo

SORIA - 270 km

- 163 Sagardoi Lana, Xabier

SOTO DEL REAL - Madrid V - 490 Km

- 164 Apeztegia Jaka, Karlos
- 165 Aranalde Ijurko, Maite

TERUEL - 450 km

- 166 Ormazabal Lizeaga, Asier

TOPAS (Salamanca) - 440 km

- 167 Etxeberria Martin, Iñaki
- 168 Inziarte Gallardo, Juan Manuel
- 169 Lupiañez Mintegi, Gorka
- 170 Ugarte Villar, Xabier
- 171 Vicario Setien Gregorio
- 172 Arriaga Martinez, Josune

VALDEMORO, Madrid III - 490 km

- 173 Otegi Unanue, Mikel

VALENCIA II (Picassent) - 540 km

- 174 Badiola Lasarte, Asier
- 175 Merino Bilbao, Guillermo
- 176 Saenz Olarra, Balbino
- 177 Zubiaga Bravo, Manex

VALENCIA III (Picassent) - 540 km

- 178 Azurmendi Peñagarikano, Mikel
- 179 Aginako Etxenagusia, Asier
- 180 Garcia Arrieta, Garikoitz
- 181 Gonzalez Gonzalez, Jon
- 182 Gutierrez Carrillo, Iñigo
- 183 Uranga Salbide, Patxi
- 184 Barbarin Iurrebaso, Ainhoa
- 185 Pedrosa Barrenetxea, Maite
- 186 Coello Onaindia, Aitziber + umea
- 187 Lasagabaster Anza, Olatz + umea
- 188 Mendizabal Mujika, Idoia + umea
- 189 Lizarraga Merino, Maria

VALLADOLID, Villanubla - 340 km

- 190 Orbegoza Etxarri, Mikel

VILLABONA, Asturias) - 440 km

- 191 Alonso Abad, Fernando
- 192 Etxaniz Alkorta, Sebas
- 193 Gomez Ezkerro, Jesus Maria
- 194 Labeaga Garcia, Urko

VILLENA. Alacant II - 720 km

- 195 Aranburu Sudupe, Gotzon
- 196 Arregi Erostarbe, Joseba
- 197 Ayestaran Legorburu, J Lorenzo
- 198 Berasategi Eskudero, Ismael
- 199 Fuentes Villota, Raul
- 200 Goikoetxea Basabe, Arkaitz
- 201 Iglesias Chouza, Juan Carlos
- 202 Vila Mitxelena, Fermin

ZUERA, Zaragoza - 300 km

- 203 Agirre Lete, Juan Luis
- 204 Arronategi Azurmendi, Kepa
- 205 Bilbao Gaubeka, Iñaki
- 206 Etxeberria Sagarzazu, Kepa
- 207 Garces Beitia, Iñaki
- 208 Legina Aurre, Kepa
- 209 Martinez de Osaba Arregi, Igor
- 210 Mujika Garmendia, Francisco
- 211 Zabaleta Elozegi, Jose Jabier

ESPETXE ARINDUAN

Euskal Herria

- Foruria Zubialde, Jose Ramon
- Gil Cervera, Mikel

ESTATU FRANTSESA

ARLES - 750 km

1	Aspiazu Rubina, Garikoitz	280
---	---------------------------	-----

FRESNES - 930 km

2	Goienetxea Iragorri, Xabier	981 576
3	Reta Frutos, Iñaki	999 789

LANNEMEZAN - 330 km

4	Abaunza Martinez, Javier	2793
5	Agerre, Didier	1 993
6	Agirregabiria del Barrio, Arkaitz	2 768
7	Barandalla Goñi, Ohian	2 614
8	Bengoia Lopez de Armentia, Asier	2 792
9	Esparza Luri, Iñaki	2 199
10	Fernandez Iradi, Ibon	2 226
11	Garitagoitia Salegi, Iurgi	2 769
12	Haranburu, Frederic	2574
13	Ilundain Iriarte, Alberto	2765
14	Maiza Artola, Juan Cruz	2764
15	Oiartzabal Txapartegi, Asier	2783
16	Segurola Kerejeta, Joseba	2387

MONT-DE-MARSAN - 234 km

17	Borrero Toribio, Asier	8767
18	Etxaburu Artetxe, Aitzol	8959
19	Ezeiza Aierra, Asier	8906
20	Garro Perez, Zigor	8569
21	Goieaskoetxea Arronategi, Ibon	8976
22	Iruretagoiena Lanz, Luis	8820
23	Martinez Bergara, Fermin	9141
24	Martitegi Lizaso, Jurdan	8966
25	Merodio Larraona, Zigor	9223
26	Mujika Andonegi, Ander	9142
27	Rubenach Roiz, Jon	9222
28	Sirvent Auzmendi, Ekaitz	8744
29	Suberbiola Zumalde, Igor	8977
30	Urbietta Alkorta, Josu	8599

MOULINS-YZEURE - 800 km

31	Iriondo Yarza, Aitzol	16 145
----	-----------------------	--------

MURET CD - 430 km

32	Fernandez Aspurz, Joseba	12589
33	Parot Navarro, Ion	9 680

OSNY - 970 km

34	Pla Martin, David	58 687
----	-------------------	--------

REAU SUD FRANCILIEN - 930 km

35	Albisu Iriarte, Mikel	3 002
36	Karrera Sarobe, Mikel	6 607
37	Iparragirre Genetxea, Marixol	3 001
38	Lesaka Arguelles, Izaskun	10776
39	Ozaeta Mendikute, Ainhoa	7608
40	Sorzabal Diaz, Iratxe	9533

RENNES - 800 km

41	Areitio Azpiri, Alaitz	9191
42	Bernardó Bonada, Marina	8613

ROANNE - 850 km

43	Aramendi Jaunarena, Alaitz	2964
44	Beyrie, Lorentxa	2 224
45	Moreno Martinez, Itziar	3119

SAINT MARTIN DE RE - 550 km

46	Esnaal, Jakes	14 207
----	---------------	--------

IPAR EH, EPAILEAREN KONTROLPEAN

47	Barrios Santamaria, Mikel
----	---------------------------

PORTUGAL

VALE DE JUDEUS - LISBOA

Zengotitabengoia Fernandez, Andoni